

“Ez diegu behar adina tresna ematen gazteei gobernu-espazioetan parte hartzeko”

Eneko Kanpandegi, Euskal Gazteen Gurutze Gorriaren zuzendaria

- **2020an, 7.000 haurrek parte hartu dute Gazteen Gurutze Gorriaren Gazteriak**
- **Abuztuaren 12a, Gazteriaren Nazioarteko Eguna**

Gasteiz. 2021eko abuztuaren 12a. 50+1 urte betetzen ditu Gurutze Gorria Gazteriak sortu zenetik, eta 2020an 7.000 haur, nerabe eta gazte baino gehiago artatu zituen Euskadin, 25.000 jardueraren bidez, Gurutze Gorriko gazte atal honetako kide diren 500tik gora boluntarioren laguntzarekin, zenbait esku-hartze proiektu eta gizarteratze-proiekturen bidez, hala nola "Eskola-arrakastaren sustapena", "Ospitaleratutako haurrentzako arreta" edo 'Jostailu hezitzailea' proiektuen bidez, eta prebentzio- eta sentsibilizazio-ekintzekin osasunaren, indarkeriaren edo berdintasunaren arloan, beste zenbait ekimenen artean.

Araban, ia 2.100 gaztek parte hartu zuten 11.000 jarduera baino gehiagotan, ia ehun boluntario buru zituztela.

Bizkaian 3.000k baino gehiagotan eta Gipuzkoan, ia 2.000.

Estatu osoan, **Gazteen Gurutze Gorriak ia 312.000 gazterekin egin zuen lan, ia 12.000 lagun** boluntariotzari esker.

“Gazteen Gurutze Gorria adibide ona da ikusteko gazteek era guztietako proiektuen buru izan daitezkeela, modu konprometitu eta berritzailean. Uste dut gure gizartean ez diegula behar adina tresna ematen gazteei gobernu-espazioetan parte hartzeko eta euren ekimenak aurrera eramateko. Esaten da gazteria dela gizartearen etorkizuna, baina oraina ere badela. Gazteria gizartearen etorkizuna dela esaten da, baina orainaldia ere bada, Euskadiko Gurutze Gorrian 12 eta 30 urte bitarteko 500 gazte baino gehiago daude,

beren borondatez mundua aldatzen ari direnak gizartea hobetzeko proiektuen bidez" Beñat Olave Gipuzkoako Gazteen Gurutze Gorriko zuzendariak adierazi du.

Gazteriaren Nazioarteko Eguna dela-eta, nerabeak bizitzen ari diren arazoak zein diren lehen eskutik jakiteko mahai-inguruak antolatu ditu Gurutze Gorria Gazteriak. **Pandemiaren ondorioak dira parte hartu duten pertsonen erakutsitako kezka nagusia**, eta nola uztartu duten beren bizitza pertsonala Gurutze Gorriarekin, "lana eta boluntariotza uztartzea **zaila izan da, baina besteei laguntzeko egon gara, konfinamendu-garaiko auzo-patioko animazioekin hasi eta ospitaleetako lanarekin buka, ospitaleetan ere gazte ugari egon baitira, askotan graduatu berriak, langile sanitarioen maskarillen atzean"**, adierazi du Paula Rivarés Gurutze Gorria Gazteriako zuzendariak.

Gurutze Gorriak eta Gurutze Gorria Gazteriak bat egiten dute 1999. urtean lehen aldiz egin zen ospakizun honetan, urte hartan hautatu baitzuen Nazio Batuen Batzar Orokorrak abuztuaren 12a gazteriaren egun ofizialtzat. Egun horretan, gazteek aldaketa-prozesuetan duten funtsezko rola aldarrikatzen da, baita egungo erronka eta arazoei buruzko kontzientzia eragiteko guneak sortzeko duten rola ere.

Gazteriaren lana pandemian

Frogatuta geratu da gazteek pandemian zehar izan duten inplikazioa, eta sentsibilizazio-kanpainetan inplikatzeko orain ere berragertzeak direla-eta guardia ez jaisteko, "gazteek segurtasunez egiten ditugu talde-jarduerak". **Gauzak ongi egiten ditugu. Laguntzeko hainbeste egiten ari den hainbeste gazte baldin badago, beharbada gazteen gutxiengoa da festak egiten dituenak, eta ez alderantziz"**, adierazi du Paula Rivarés Gurutze Gorria Gazteriako estatuko zuzendariak.

Gurutze Gorriaren ERANTZUN ekimeneko boluntarioen % 29 izan dira gazteak, 30 urtetik beherako 22.139 boluntariori esker, eta 60.000tik gora haur eta gazteren mesederako diren hainbat proiektu eta jarduera garatzea lortu dute.

Gazteria ez zen gelditu egon: hirukoiztu egin zen Gurutze Gorrira hurbildutako gazteen kopurua eskola-zereginetan errefortzua egiteko, etxeetara eskola-materiala edo jokoak eramateko, edo informazio- eta prebentzio-deiak egiteko. Gaur egun, beren jarduera presentzialei berriro ekin diete mota guztietako

prebentzio-neurriekin. Aurtengo udan azkenik jarduera presentzialak egin ahal izan dira, hala nola aisialdi eta astialdiko jarduerak kanpaleku eta hiri-udalekuetan, edo 'Eskola-arrakastaren sustapena' proiektuarekin lotutako eskola-laguntzako jarduerak 75 herritan baino gehiagotan, guztira 1.500 haurrengana iritsiz gutxi gorabehera.

Berdintasunaren eta genero-indarkeriaren prebentzioaren arloan egiten du Gurutze Gorria Gazteriak bere beste aldarrikapen nabarmenetako bat, **eta lurralde osoan berriz ere instalatzen hasi diren 'Gune propioei' esker, leku seguruak sortzen dituzte gaueko aisialdiaz gozatzen ari diren neska gazteentzat:** "Aisialdirako guneak emakumeentzat seguruagoak izan daitezela saiatzen gara, gazte guztiak indarkeria matxistari buruz sentibilizatuz eta informatuz, eta gune seguru bat sortuz gerta daitekeen genero-indarkeriako edozein egoera dela eta".

'Gune propio' bakoitzean informazio-karpak jartzen dira boluntarioekin, eta boluntario horiek ere zalantzak argitzen dituzte eta kontzientziarazioko jarduera ludikoak antolatzen dituzte genero-berdintasuna bermatzen duten bideak sortzeko. Parte hartzen duten hogeita bi probintziak badituzte jada gune horiek, **eta gune horietan 2021ean 7.000 emakume baino gehiago artatzea dago aurreikusita, 220 boluntarioen parte-hartzeari esker.**

Gazte atalaren etorkizuna argi dago parte-hartzaileentzat: "leku seguru bat non besteei laguntzen jarraituko dugun, eta haien arazoak konpontzeko erabat murgilduko gara haiengana hurbilduz gehien ezagutzen dituzten guneetatik: sare sozialak eta teknologia berriak"

Gazteria ordezkatzeko duten beste zenbait erakundetako ordezkariak ere parte hartu dute hitzaldi horietan, hala nola Don Bosco Konfederazioak, Gazteriaren Kontseiluak edo Ikasle Elkarteen Estatuko Konfederazioak.

Pilar Blasco Don Bosco Konfederazioko presidentek bere kezka agertu du oinarritzko premiak betetzearen inguruan: "uste dut gaur egun gazteriak ez dituela beharrezko baldintzak bizitza duin bat izateko. Gazteriaren arazo nagusia beren bizi-proiektua ezin sortu ahal izatea da, lan duinak ez dituztelako, emantzipatu ahal izatea, aisialdi alternatibo bat izatea...".

Bere aldetik, Ana Collados Espainiako Gazteriaren Kontseiluko Hezkuntza Ez Formaleko eta Trantsizio Ekologikoko bokalak gazteek krisialdi sanitarioan izandako rola azpimarratu du: "gazteek kolapsatu egin ditugu txertoa jartzeko hitzordua eskatzeko zerbitzu elektronikoak, guk eskaini dugu geure burua gure

adineko pertsoneri eta auzokoei erosketak egiten laguntzeko, eta guk antolatu eta parte hartu dugu elkarretaratzeetan segurtasun-neurri sanitarioak betez. Aisialdi segurua eskaini dugu gure elkarte eta erakundeen bidez, eta normaltasun berriaz gozatu ahal izateko gehien itxaron duen adin-tarteko kolektiboa gara, beti iladako azkenak".

Ildo berean, Andrea Henry CANAE Ikasle Elkarteen Estatuko Konfederazioko presidenteak adierazi duenez, "pandemia osoan kriminalizatu egin gaituzte. Nik ezin dut gazte guztien izenean hitz egin, baino oso harro nago ikasle guztiek egindako lanaz. Ez da adin-kontu bat, erantzukizun-kontu bat da".

ERANSKINA BOLUNTARIOEN BANAKAPENA AUTONOMIA-ERKIDEGOEN ARABERA

Autonomia Erkidegoa	Boluntarioak 2020
Andaluzia	1955
Aragoi	480
Asturias	388
Balear Uharteak	177
Kanaria Uharteak	421
Kantabria	117
Katalunia	1631
Ceuta	30
Gaztela-Mantxa	819
Gaztela eta Leon	993
Valentziako Erkidegoa	1178
Euskadi	503
Extremadura	142
Galizia	778
Errioxa	309
Madrilgo Erkidegoa	1418
Melilla	0
Nafarroako FK	182
Murtzia	225
Guztira	11.754